



SORTZE BERRI BAT INDARKERIA OBSTETRIKORIK GABEA

Estitxu Fernandez Maritxalar

2023
URRIA

Indarkeria obstetrikooz hitz egitea ez da gauza berria. Horrek ez du esan nahi, ordea, gauza onartua denik, ez konpartitua, ez arantza gabea. Aldagai kultural, ekonomiko eta egiturazkoek eraikitzen dute indarkeria obstetrikoa; emakumeen haurdunaldi, erditze eta erdiandoan osasun-sistemako profesionalak emakumeari edota umeari ematen dioten tratatu txarraz ari gara, eta ondorio fisikoak eta psikologikoak eragiten ditu. Ederki kabitzen da, beraz, patriarkatuaren baitan. Osasun-arloko adituak pazientearen hobe beharrez aritzen dira gehienetan, baina ez beti. Batzuetan, lan-jardunaldia lehenbailehen bukatu nahi dutelako eragiten dute erditzea; edo erditze-gela hustu behar delako; edo asteburua libre izateko programatzen da zesarea bat. Esku hartzen dute, jakinda hori ez dela emakumearentzat onena, haren beharrak bigarren mailan jartzen ari direla. Gehienetan, ez dira ohartzen, ikasi dutena errepikatzen dute: emakumeari ez diote informazio osoa ematen, edo beraren partez erabakitzen dute. Ez da beti gertatzen, noski, eta denek ez dute berdin jokatzeko; baina arazoa egiturazkoa da, sistemarena berarena. Kontzeptuari buruzko sarrera mamitsu baten ostean, hainbat emakumeren lekukotzak jaso ditu Estitxu Fernandezek, gozo bezain zorrotz, indarkeria obstetrikolari hitzak, ahotsa eta gorputza jartzea, sendabide ez ezik, harekin bukatzeko lehen urratsa delakoan.

SAIAKERA

ISBN: **978-84-19319-67-8**
ORRIALDEAK: **344**
FORMATUA: **135 x 215**
PREZIOA: **22,00 €**

FEMINISMOA AMATASUNA

SIKOLOGIA



ESTITXU FERNANDEZ MARITXALAR

(Lesaka, Nafarroa, 1975)
Psikologoa da, osasun mental perinatalean aditua. Garai batean kazetari eta bertsolari jardun zen, eta azken urteetan haurdunaldian, erdiandoan eta hazierako lehen urteetan emakumeak beren behar emozionaletan akonpainatzen ditu. Horri loturik, amatasuna, feminismoa eta haurdunaldi zein erditze kontzienteak hizpide izan ditu *Gure erditzearen jabe* (Erein, 2014) eta *M ama eme ume* (Elkar, 2022) liburuetan, azken hori Erika Lagomarekin batera idatzia.

- Estitxu Fernandez psikologo eta idazlea osasun mental perinatale sustatzeko elkarte batean aritzen da, eta ehunka emakume akonpainatu ditu beren haurdunaldian, erdiandoan eta hazierako lehen urteetan.
- Erditze errespetatuei eta askotariko amatasunei buruzko liburu banaren ostean, egileak gai gatazkatsu bezain beharrezko bati heldu dio, gozo eta zuzen, esperientzia hauetaz hitz egiteak ekar ditzakeen onurez eta hobekuntzez jakitun.
- Feminismotik begiratzen diote indarkeria obstetrikolari bai egileak eta bai orriotara ekartzen dituen emakumeek, prozesu pertsonala eta kolektiboa uztartuz eta eskubideak bezala sareak eta erantzukizunak azaleratuz.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus